



F A M E K elkartea
Asociación de Cooperación
al Desarrollo de Mujeres
Kongovascas
(Bizkaia)

S P R
Synergie des Femmes pour la Paix et
la Reconciliation des peuples des
Grands-Lacs d'Afrique
(Kongoko Errepublika Demokratikoa)



IKERKETA

RUZIZI ETA BIZKAIKO EMAKUME KONGOARREN ERRESILIENTZIA ETA LIDERGOA

Iruditeria kolektibo birbiktimizatzailea deseginez eta genero indarkeriaren kontrako borrokaren estrategiak ezagutaraziz



2025eko azaroa

Ikerketa

Ruzizi eta Bizkaiko emakume kongoarren erresilientzia eta lidergoa. Iruditeria kolektibo birbiktimizatzailea desaginez eta genero indarkeriaren kontrako borrokaren estrategiak ezagutaraziz.

EGILEAK:

FAMEK Elkartea. Asociación de Cooperación al Desarrollo de Mujeres Kongovascas

SPR. Synergie des Femmes pour la Paix et la Reconciliation des peuples des Grands-Lacs d'Afrique
medicushmani Bizkaia



IKERKETZAILE NAGUSIA:

Marie Lucia Monsheneke

TALDE LAGUNTZAILEA:

Yvette Mushigo, Germaine Lubanzadio, Augustine Kinkela, Maria Paz Obama Massigui, Noelle Mumbumbu.

DATA: 2025eko azaroa

ITZULPENA:

ESAN Traducciones y Transcripciones SL

EDITOREA:

FINANTZATZAILEA:



AURKIBIDEA

HITZAURREA	3
ESKAINNTZA	4
1. SARRERA	5
1.1. Gaiaren testuingurua	5
1.2. Dokumentuaren garrantzia	6
1.3. Dokumentuaren helburua	6
1.4. Metodologia.....	7
2. TESTUINGURU SOZIOKULTURAL ETA GEOGRAFIKOA	8
2.1. Ruzizi lautadako kongoar emakumeak: Erresistentzia, Borroka, Erresilientzia eta Lidergoa ..	9
2.2. Bizkaiko kongoar diaspora: Migrazioa, Erresilientzia eta Lidergoa.	9
2.3. Indarkeriaren arloan emakumeei iraunarazten zaien zama soziokulturala	10
3. ESPARRU TEORIKOA: ISILTASUNA HAUSTEAREN GARRANTZIA	12
3.1. Erresilientzia: Kontzeptua eta dimentsioak	12
3.1.1. Erresilientzia indibiduala	13
3.1.2. Erresilientzia kolektiboa	13
3.1.3. Egiturazko erresilientzia	13
3.1.4. Indarkeria eta migrazio testuinguruetan jazo diren erresilientzia adibide zehatzak ...	13
3.2. Lidergo femeninoa gatazka eta migrazio testuinguruetan	14
3.3. Genero indarkeriak: Ikuspegi globala eta lokala	15
3.4. Iruditeria kolektiboaren eraikuntza eta biktimengan horrek duen inpaktua	16
4. IRUDITERIA KOLEKTIBO BIRBIKTIMIZATZAILEA DESEGITEN	18
4.1. Kongoar emakumei buruz nagusi diren narratibak	18
4.2. Komunikabideen eta GKEn rola	18
4.3. Agentibitatea eta duintasuna sustatzeko narratiba alternatiboak	19
5. GENERO INDARKERIAREN KONTRAKO BORROKA-ESTRATEGIAK	21
5.1. Tokiko estrategiak Ruzizin: Laguntza sareak eta erresistentzia.....	21
5.2. Bizkaiko esperientziak: Komunitate erresilienteen eraikuntza.....	22
5.3. Ekintza global eta intersektional baterako proposamenak	22
6. ANALISIA ETA GOGOETAK	24
6.1. Banakako eta taldeko inkesten emaitzak	24
6.2. Kongoar emakumeen erresilientzian giltzarri diren faktoreak	25
6.3. Lidergo femeninoak aztertutako komunitateetan duen inpaktua	26
6.4. Azterlanaren mugak eta etorkizuneko perspektibak	27
6.5. Gogoeta	28
7. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK	29
7.1. Konklusioak	29
7.2. Gomendioak	30



7.3. Gogoeta	31
8. ERANSKINAK	32
8.1. Adierazpen Etikoa eta Hitzen Glosarioa	32
8.1.2. Hitzen Glosarioa	32
8.2. Egindako elkarrizketak.....	33
8.2.1. Egindako elkarrizketak: Ruziziko lautadako emakumeak	34
8.2.2. Egindako elkarrizketak: Bizkaiko emakumeak	35
8.2.3. Elkarrizketen gaineko konklusioa.....	36
8.3. Material osagarriak (argazkiak, bideoak, etab.)	36
8.4. Bibliografia eta iradokitako materialak.....	38



HITZAURREA

Dokumentu honek teoria, bizitako esperientzia eta memoria kolektiboa elkar lotzen ditu ikuspegi feminista, intersektional eta dekolonial batetik kongoar emakumeen ahotsak, borrokak eta jakintzak erdigunean jartzeko, bai jatorriko beren lurraldean, bai migrazio testuinguruetan, bereziki Bizkaian. Gogoeta kolektibo, ekintza konprometitu eta entzumen aktibo baten emaitza da.

Premiazko behar batetik sortua da: emakumeek aldaketako eragile, komunitateko lider, giza eskubideen defendatzaile eta bakearen eraikitzaile gisara betetzen duten funtsezko eginkizunari ikusgarritasuna ematea. Emakumeei neurrigabeki eragiten dieten gerrek, migrazioek, behartutako lekualdatzeek eta egiturazko desberdintasunek markatutako mundu batean, dokumentu honek ezbaian jarri nahi ditu emakumeak biktima pasiboak izatearen egitekora mugatzen dituzten narratibak.

Diskurtso estigmatizatzaile eta parternalisten aurrean, kongoar emakume askok hezurmamitzen dituzten erresilientzia, agentibitate eta lidergo eraldatzailea errebindikatzen dira hemen. Bizitzari eusteko, gatazketan bitartekari izateko, sare komunitarioak bultzatzeko eta testuingururik beltzenetan itxaropena sortzeko duten gaitasuna aintzatesten da.

Lan honek euren bizitzak zeharkatzen dituzten ardatz nagusiak jorratzen ditu, ikuspegi kritiko eta eraldatzaile batetik: genero indarkeria, bere askotarikotasunean; migrazio prozesua, erresistentziek zeharkatutako bizi-esperientzia gisara; egiturazko arrazismoa. Alabaina, baita indar espiritualak, emakumeen arteko elkartasuna eta ahalduntze kolektiboa ere.

Hemen biltzen diren ahotsak, historiak eta borrokak ez dira inspirazio iturri soil bat, ekintzarako, entzute aktiborako eta egiturazko aldaketarako dei bat ere badira. Dokumentu hau, beraz, borrokaren, afektuaren eta justizia kolektiboaren adierazpen bat da. Elkarriketarako eta eragiteko tresna bat, baina baita nazioarteko bestelako lankidetzak era bat irudikatzen eta eraikitzen proposamena ere: bidezkoagoa, horizontalagoa eta gizatiartzaileagoa.

Afrikan emakumeen birbiktimizazioa betikotzen jarraitzen duten iruditeriak eraldatzeko gonbita bat ere bada, salbatu beharreko subjektu gisara ikusi ordez eraldatzen duten subjektu gisara ikusi ditzagun.

Eskerrak ematen dizkiegu bihotz-bihotzez beren historiak, borrokak eta jakintzak partekatu izan dituzten emakume guztiei. Eurak dira dokumentu honen benetako egileak.

Errespetuz, esker onez eta konpromisoaz.



ESKAINITZA

Lan hau begirune eta mirespen sakonez eskaintzen diegu beren lurraldetik zein diasporan erresistitzen, lideratzen eta beren errealitateak duintasunez, ausardiaz eta jakinduriaz eraldatzen dituzten kongoar emakume guztiei. Haietako bakoitzari, haien ahotsek eta bizipenek argitzen baitute dokumentu hau.

Gure aitortza, halaber, prozesu hau beren konpromisoarekin, laguntzarekin, lankidetzarekin eta ahizpatasunarekin ahalbidetu izan duten erakundeei. Gure esker ona hauei:

- **SPR (Synergie des Femmes pour la Paix et la Reconciliation des peuples des Grands-Lacs d'Afrique)**, KEDko ekialdean, gatazkako testuinguruetan giza eskubideen, bakea eraikitzearen eta emakumeen ahalduntzearen alde egindako beren lan ezinbestekoarengatik.
- **Medicusmundi Bizkaia**, lurraldeen, kulturen eta jakintzen arteko zubiak eraikitzen emandako laguntzagatik.
- **FAMEK Elkarte**a (**Euskal eta Kongoar Emakumeen Garapenerako Lankidetzaren Elkarte**a), Euskadin diren afrikar emakumezkoen giza eskubideak defendatzen egindako etengabeko lanagatik, bere indar kolektiboagatik, ikusmen eraldatzaileagatik eta egunerokotasuneko lidergoagatik.

Duintasunez eta kemenez gatazkaren, migrazioaren eta diskriminazioaren erdian erresistitzen, sendatzen eta bizitza berreraikitzen duten kongoar emakume guztiei.

Etsitzen ez duten, zaindu egiten duten eta borrokatzen duten emakumeei, espiritualitatetik, samurtasunez eta irmotasunez komunitatea lideratzen dutelako.

Gure amei, ahizpei, alabei eta emakumezko arbasoei.

Gure aurretik bidea urratu izan duten emakumeei, beren jakinduriarekin eta beren odolarekin bideak irekiz.

Dagoeneko ez dauden emakumeei, baina argia izaten jarraitzen dutelako.

Dauden emakumeei, beren hitzarekin eta indarrarekin eusten digutelako.

Dokumentu hau zuongatik eta zuontzat da.

Maitasunez, memoriaz eta konpromisoarekin.

Haientzat guztientzat, eurena da dokumentu hau.

Sinatzaileak:

- **FAMEK Elkarte**a: Euskal eta Kongoar Emakumeen Garapenerako Lankidetzaren Elkarte (Bizkaia). **Marie Lucia MONSHENEKE**: Dokumentuaren koordinazioa eta erredakzioa
- **SPR**: Synergie des Femmes pour la Paix et la Reconciliation des peuples des Grands-Lacs d'Afrique (KED). **Yvette NEEMA MUSHIGO**: Dokumentuaren berrirakurketa



1. SARRERA

Dokumentu honek kongoar emakumeen erresilientzia eta lidergoa jorratzen ditu bi testuinguru ezberdinetan baina indarkeria, migrazio eta borroka prozesuengatik konektatuta direnetan: Kongoko Errepublika Demokratikoaren (KED) Ruziziko lautadaren eskualdea, eta Bizkaiko lurraldea, Euskal Herrian. Begirada feminista eta interseksional batez baliatuz, emakumezko horiek askotariko indarkeriei nola egiten dieten aurre azaltzen da, gatazka armatuetatik hasi eta arrazismo instituzionaleraino. Biktimizatu eta etsipenari eman ordez, estrategia komunitarioak, laguntza sareak, bizi-proiektuak eta lidergo eraldatzaileak sortzen dituzte.

Jardueraren asmoa da kongoar emakumeak biktima pasibo gisa azaltzeko joera duten iruditeria kolektiboak desagitea, eta gizarte aldaketarako eragile gisa betetzen duten funtsezko egitekoari balioa ematea. Hasi beren jatorrizko lurraldetatik eta harrera komunitateetaraino, emakume horiek zapalkuntza egiturei desafio egiten dieten eta justizia, bakea eta genero berdintasuna sustatzen duten ekimen ekonomiko, kultural eta sozialak bultzatzen dituzte.

Lekukotzen, analisi teorikoen eta esperientzia zehatzen bidez, lan honek emakume horiek eraldaketa pertsonal eta kolektiborako bidean duten indarrari, duintasunari eta eguneroko erresistentziari ikusgarritasuna ematen dion kontakizun alternatibo bat proposatzen du.

1.1. Gaiaren testuingurua

Kongoar emakumeen egoera, hala Ruziziko eskualdean (Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdean) nola Bizkaian (Euskal Herria) den diasporan, askotariko indarkeria, diskriminazio eta bazterkeria motek markatutako errealitate konplexu bat da. Ruziziren kasuan, gatazka armatuak, militarizazioak, baliabideen esplotazioak eta behartutako lekualdatzeek historikoki eragindako lurralde bat da, eta emakumeen gorputza etengabeko gudu-zelai da bertan. Indarkeria sexistek belaunaldi oso batzuk markatu izan ditu, batik bat, gerrako eta menderatzeko estrategia gisara erabilitako bortxaketak. Hala ere, emakumeek gaitasun apartak garatu izan dituzte erresistitzeko, antolatzeko eta eraldaketako prozesu komunitarioak lideratzeko.

Bestetik, Bizkaira migratutako kongoar emakumeak erronka ezberdinak baina elkar lotutakoak dituzte aurrean. Gatazka armaturik gabeko ingurune batean bizi badira ere, indarkeria era berri batzuekin aurkitzen dira: instituzionala, sinbolikoa, arrazista eta patriarkala. Euren genero identitateak, jatorriak, egoera administratiboak eta larruazalaren koloreak baldintzatzen du enplegu duina, osasuna, etxebizitza edo parte-hartze politikoa bezalako funtsezko eskubideetarako aukera izatea. Hala eta guzti, askok laguntza sareak sortu dituzte, elkarrekin lideratzen dituzte eta beren burua eskubidedun subjektu aktibo gisara babesteko eta berresteko ekimenak garatu dituzte.



1.2. Dokumentuaren garrantzia

Lan honek analisi kritikorako, salaketarako eta ikusgarritasuna emateko tresna bat izan nahi du. Lehenik eta behin, kongoar emakumeak indarkeriaren biktima pasibo gisara bakarrik azaltzen dituzten eta euren ezagutzak, lidergoak eta erresistentzia komunitariorako estrategiak isiltzen dituzten narratiba hegemonikoak desegin nahi ditu.

Bigarrenik, ulermenerako zubiak eraiki nahi ditu Hegoalde Globalaren –hori da Ruzizi lautadako eskualdearen kasua, Kongoko Errepublika Demokratikoa– eta Iparralde Globalaren –euskal testuingurua– artean, agerian jarritz zapalkuntzako sistema patriarkalak, kolonialak eta kapitalistak lurralde askotan artikulatzen eta erreproduzitzen direla.

Ikuspegi feminista, interseksional eta dekolonial batez, ikuspegi horrek emakumeen gorputz eta lurraldeak zeharkatzen dituzten askotariko indarkeriak identifikatzeko aukera emateaz gain, bidea zabaltzen dio erreparazio, eraldaketa eta justizia sozialerako proposamenak eraikitzeke aukerei.

Analisi hau ezinbestekoa da afrikar emakumeak errukirako edo esku-hartzeko objektu izatera murrizten dituzten diskurtso menperatzaileak ezbaian jarri eta eraldatzeko. Aitzitik, gatazkako eta gatazka osteko testuinguruetan agentibitate, antolaketa eta lidergorako dituzten gaitasunak jakitera eman nahi ditu. Azterlanak, era berean, dimentsio argiro pedagogikoa du ezagutza kritikoa sortzen laguntzen duenez, eta politika publiko inklusiboak diseinatzera eta esku-hartze sozialerako estrategia bidezkoagoak eta eraginkorrak inplementatzera eraman dezake.

1.3. Dokumentuaren helburua

Helburu orokorra

Kongoar emakumeek Ruzizin (Kongoko Errepublika Demokratikoa) eta Bizkaian (Euskal Herria) genero-indarkeriaren eta egiturazko diskriminazioaren askotariko eren aurrean, beren inguruneetan modu eraldatzailean eragiten duten estrategia komunitarioak eta eguneroko erresistentziak sortuz, lidergoa eta erresilientzia nola garatzen duten aztertzea.

Helburu zehatzak

- ✓ Kongoar emakumeek beren jatorriko nahiz harrerako testuinguruetan aurre egin beharrean diren erronka estruktural, kultural eta sinboliko nagusiak identifikatzea.
- ✓ Indarkeria interseksionalei –tartean, arrazismoa, sexismoa eta klasismoa– aurre egiteko dituzten borrokei ikusgarritasuna ematea.



- ✓ Euren lidergoek Hegoalde zein Iparralde Globalean bizi diren komunitateetan eraldaketa sozialean duten inpaktua aztertzea.
- ✓ Irudi estereotipatuak eta birbiktimizatzailerak erreproduzitzen dituzten diskurtso instituzionalak, mediatikoak eta sozialak ezbaian jartzea eta desegitea.
- ✓ Emakume horiek gizarte bidezkoagoak, inklusiboagoak eta erresilienteagoak eraikitzen duten rol aktiboa aitortzen eta indartzen duten tresna narratibo, politiko eta komunitarioak proposatzea.

1.4. Metodologia

Dokumentu hau metodologia kualitatibo eta parte-hartzaile batean oinarritzen da, eta kongoar emakumeen ahotsa eta esperientzia ditu ardatz. Hainbat tresna erabili izan dira, horien artean elkarrizketa erdiegituratuak, talde fokalak, dokumentuen analisia eta espazio komunitarioetako behaketa parte-hartzailea, bai Ruziziko lautadan, bai Bizkaian. Analisia esparru teoriko feministetan, interseksionaletan eta dekolonialetan oinarritzen da, bizipenen egituraketan testuinguru historikoak, sozialak eta materialak duen garrantzia aintzat hartuta.

Ikerketan toki ezberdinetako emakumeen parte-hartze aktiboa jaso zen: Runingu taldeko 5 emakume, Kamanyola taldeko 7 emakume (Ruziziko lautadan), eta Bizkaian bizi diren 15 emakume. Irizpide hauek erabili ziren parte-hartzaileak hautatzeko: adina, interesa, eremu geografikoa, bizipen pertsonalak eta jarduera komunitarioetan den parte-hartzea, ikuspegi aniztasuna eta adierazgarritasuna bermatze aldera.

Banakako eta taldeko elkarrizketak tartekatu ziren, aldezturik bermatuz baimen informatua zegoela eta baita irudiak erabiltzeko baimena ere, beharrezkoa zenean. Lana bertatik bertara burutu zen Kamanyolan eta Bizkaian, eta Zoom plataformaren bidez egindako saio birtualekin osatu zen esperientziak partekatzeko, gogoeta era kolektiboan egiteko eta ezagutza lurralde ezberdinetatik sortzeko. Metodologia horren bidez, emakumeen parte-hartze aktiboa, haien historiei ikusgarritasuna ematea eta ikuspegi kolaboratzaile nola kontestualizatu batekin analisia indartzea lortu ahal izan zen.

2. TESTUINGURU SOZIOKULTURAL ETA GEOGRAFIKOA

Kongoko Errepublika Demokratikoa (KED) Erdialdeko Afrikaren erdigunean dago, ekuatoreak zeharkatzen du, bederatzi herrialderekin egiten du muga eta izugarrizko aniztasun geografiko, ekologiko eta kulturala du. Haren lurraldearen barruan daude **Kongoko oihan ekuatorial** zabala, munduko bigarren handiena dena, sabanak, eskualde menditsuak eta laku handiak. Planetako aberastasun biologikorik handienetakoa duen herrialdea da. **Koltana, kobaltoa, urrea eta diamanteak** bezalako baliabide mineral garrantzitsuak ditu, eta horien ustiakuntza faktore erabakigarria izan da nagusiki sortaldeko eta ekialdeko eskualdeari eragiten dion gatazka armatu luzatuetan. “**Ndalak** (2021) literatura bidez aztertutako herentzia kolonialak jarraitzen ditu markatzen KEDren tentsio identitario eta politikoak.”

Ipar Kivu, Hego Kivu eta Ituri probintzietan etnia eta hizkuntza asko bizi dira elkarrekin (swahilia, lingala, frantsesa eta tokiko hizkuntza anitz), mundu ikuskera, tradizio kultural, praktika erlijioso eta espiritualitate eren elkarlotze konplexu bati bide emanez. Hiru hamarkada baino gehiago dira lurralde horretan **indarkeria armatu etengabea** dena, interes ekonomikoak eta geopolitikoak akuilatuta, eta milioika hildako eta behartutako lekualdatzeak eragin izan ditu. Gerrako arma gisara erabili izan dira **indarkeria sexuala eta genero indarkeria**, bereziki emakumeei eraginez.

Egoera makur horien arren, komunitateek **antolaketa sozial erresilienteak** garatu izan dituzte, emakumeek egiteko nagusia betetzen dutelarik **komunitatearen berreraikuntzan, eskubideen defentsan, gizarte bitartekaritzan, laguntza sareak sortzen eta hezkuntza sustatzen**, eraldaketaren eta erresilientziaren funtsezko eragile bilakatuz.

Diasporan, Bizkaian ezarri den komunitatea barne, emakume horiek **desberdintasunari, egiturazko arrazismoari, prekarietateari eta legezko oztopoei** aurre egin beharrean dira, baina erresistentziako espazioak eraikitzen jarraitzen dute, nazioz gaindiko lankidetzak indartuz, familiak sostengatuz eta genero-indarkeriak ikustera emanez.

Sintesia: Kongo ekialdea izugarrizko aberastasun naturaleko eta aniztasun kultureko eskualdea da, gatazka luzatuek eta desberdintasunek baldintzatua. Emakumeek **erresilientzia eraldatzailea** gorpuzten dute, bai jatorriko beren lurraldean, bai migratutako lurraldean, eta bakearen, justizia sozialaren eta berreraikuntza komunitarioaren ardatz dira.



2.1. Ruzizi lautadako kongoar emakumeak: Erresistentzia, Borroka, Erresilientzia eta Lidergoa

Kavenek (2023) adierazten duen bezala, “Ipar Kivuko emakumeek fedea eta komunitate-antolaketa uztartzen dituzte gerraren erdian bizitzari eusteko, eta erresilientzia espiritual eta kolektiboa erakusten dute”. Ruziziko lautadaren eskualdea, Hego Kivuren probintzia, Kongoko Errepublika Demokratikoaren (KED) ekialdean, Ruandarekin eta Burundirekin muga eginez, gatazka armatu luzeen agertokia izan da historikoki. Krisi horiek sustrai sakonak dituzte kolonizazioan, etnien arteko tentsioetan, baliabide natural estrategikoen kontrolean (koltana, urrea eta beste mineral batzuk) eta eskualdeko ezegonkortasun politikoan. Eskualdeak gerrak bizi izan ditu behin eta berriro 1990. hamarkadatik, talde armatuak ibili dira han-hemenka eta populazioaren lekualdaketa masiboak gertatu dira, neurrigabeki eraginez emakumeei eta neskatilei.

Kongoar emakumeak indarkeria sexualaren biktima sistematikoak izan dira Ruzizin gerrako arma gisara, behartutako lekualdaketak, familiaren desegituraketa eta baliabideen galera bizi izan dute, sarbide oso murriztua izanik osasuna, hezkuntza eta babes-bazterak funtsezko zerbitzuetara.

Aipatu egoera larriagotu egiten da inpunitate orokortuagatik, arduradunen utzikeriagatik eta justiziaren mekanismo eraginkor ezagatik. Beraz, indarkeriaren eta urrakortasunaren zikloa betikotzen du.

Muturreko baldintza horiek gorabehera, emakumeek erresistentziarako eta erresilientziarako modu apartak garatu izan dituzte. Laguntza sare komunitarioak sortu dituzte baliabide oso gutxiarekin, eta laguntza, babes-bazter eta akonpainamendu emozionala ematen diote elkarri. Euren altxatu izan dute sokorru ahotsa, bidegabekeriei ikusgarritasuna emanez eta indarkeria salatuz, baita babes-sistemak eta nazioarteko komunitateak huts egin izan duenean ere.

Testuinguru horretan, Ruziziko lautadako emakumeak ez dira mugatzen bizirautea; aitzitik, lidergo isilak ehuntzen dituzte beren komunitateetan, hondatutako gizarte ehuna indartuz eta duintasuneko, zainketa kolektiboko eta eraldaketa sozialeko espazioak eraikiz. Antolaketa eta lidergorako haien gaitasuna erresilientzia komunitarioaren eredu da, eta indar eta elkartasun femeninoak egiturazko indarkeriaren eta bazterketaren aurrean bizitzari nola heltzen dioten erakusten du.

2.2. Bizkaiko kongoar diaspora: Migrazioa, Erresilientzia eta Lidergoa.

Ante Bizkaia Euskal Herrian dago, Espainiako iparraldean, eta aniztasun kulturalak, industrializazio historikoak eta gizarte kohesio indartsu batek ezaugarritzen du. Testuinguru horretan, kongoar komunitate migratzaileak laguntzeko eta parte hartzeko sareak garatu ditu, beren jatorriko herrialdearekin loturak mantentzeko eta integratzeko era berriak eraikitzeko aukera ematen dietena.

KEDko ekialdeko gatazken areagotzeak, etengabeko segurtasun gabeziak, egiturazko genero indarkeriak eta muturreko pobrezia migratzera bultzatu izan ditu kongoar emakume asko, babes



nahian eta bizi-baldintza duinago batzuen bila. Lekualdatze horren muinean dinamika konplexuak daude, egiturazko faktore batzuei lotuta, hala nola desberdintasun globala, estraktibismoa eta behar bestekoa ez den nazioarteko babesa.

Migrazio prozesuak erronka ugari dakartza berarekin: erregularizazio administratiboa, hizkuntza oztopoak, enplegurako, etxebizitzarako eta oinarritzko zerbitzuetarako zailtasuna, eta baita diskriminazioko eta gizarte isolamenduko bizipenak ere. Emakumeak eta afrikar migratzaileak izatearen baldintza bikoitzagatik, egiturazko arrazismoaren, xenofobiaren eta gizarte bazterkeriaren eraginpean daude. Gainera, indarkeriazko euren bizi-ibilbideak eta bizipenak gutxietsiak edo instrumentalizatuak dira sarritan.

Oztopoak oztopo, kongoar emakumeek laguntza sareak eraikitzen dituzte, ekimen komunitarioak bultzatzen dituzte eta duintasuneko espazioak, zainketa kolektiboa eta eraldaketa soziala sortzen duten lidergo eginkizunak hartzen dituzte beren gain Bizkaian. Era aktiboan hartzen dute parte tokiko elkarteetan, hezkuntza proiektuetan eta giza eskubideei buruzko sentsibilizazio kanpainenetan, eta nazioz gairik erresilientziaren eta lidergoaren funtsezko eragile bihurtu dira.

Testuinguru geopolitikoaren eta migrazio egoeraren analisi horrek kongoar emakumeek garatzen dituzten erresilientzia eta lidergoko prozesuen sakontasuna eta konplexutasuna ulertzeko aukera ematen du, bai jatorriko beren lurraldeetan, bai diasporan.

2.3. Indarkeriaren arloan emakumei iraunarazten zaien zama soziokulturala

Indarkeriaren arloan emakumei iraunarazten zaien zama soziokulturalaz ari garenean, arauak, sinesmenak eta jardunbide sozialek **emakumeen kontrako indarkeria normalizatzen, ikusezin egiten edo justifikatzen** nola laguntzen dutenaz ari gara, ondorio sakonak sortuz maila indibidualean zein kolektiboan. **Carlos** bezalako testigantzek (**Denis Mukwege-ren hitzaurrea**) kongoar komunitateek hamarkadetako indarkeriatik eta diktaduretatik bizirauteko duten gaitasuna ulertzeko aukera eskaintzen dute. Giltzarri diren puntu batzuetan banakatzen dugu:

1. Indarkeriaren normalizazioa

Gizarte askok erakutsi dute indarkeria mota batzuk “normalak” direla maitasun-, familia- edo lan-harremanetan.

Adibideak: janzkeraren gaineko kontrola, mugikortasuna mugatzea, indarkeria sexuala bikote harremanean, umiliazio publikoak edo pribatuak.

Prozesu horren ondorioz, emakumeek barneratu egiten dute indarkeria eta erasotzaileek inpunitatea sentitzen dute.



2. Genero rol zurrunak

Emakumeak “menpekoak, esanekoak eta zaintzaileak” izatea espero da; gizonak, berriz, “menperatzaileak eta zuzkitzaileak” dira.

Espektatiba horiek emakumea abusuzko egoerak ‘aguantatzera’ bultzatzen du edo gizarteak errua biktimari botatzera (“hau edo hura egin izan balu, ez zen gertatuko”).

3. Biktimari errua botatzea

Diskurtso kulturalak emakumeari leporatzen diote askotan jasandako indarkeriaren erantzukizuna: nola janzten da, nola jarduten du edo nola erantzuten du.

Ondorioz, gutxiago salatzen da eta indarra eta etsipena indartzen dira.

4. Isiltasuna eta tabuak

Emakumeen kontrako indarkeria ezkutuan mantentzen da lotsagatik, gizartearen arbuioaren beldurragatik edo familiaren presioagatik.

Sekretuaren edo “etxean gertatzen denaz ez hitz egitearen” kulturak iraunarazi egiten du indarkeriaren zikloa, bereziki ezkontideen arteko eta etxeko indarkeria.

5. Egiturazko oztopoak

Arau eta jardunbide diskriminatzaileak, nahikoak edo inklusiboak ez diren legeak, edo emakumeak babesten ez dituzten prozedura instituzional eta judizial oso astunek indartu egiten dute euren sufrimendua saihetsezina edo eramangarria denaren ideia.

“Zama soziokulturalaren” parte da hori: ez da soilik indarkeria fisikoa edo ahozko indarkeria, desberdintasuna legitimatzen duen bilbe sozial bat da.

6. Inpaktu psikologiko eta soziala

Beldur etengabea, antsietatea, autoestimu baxua, inpotentzia sentsazioa, arbuioa, isolamendua.

Belaunaldi berrientzako rolak erreproduzitzen dira, belaunaldi arteko indarkeria betikotuz.

Konklusioa

Zama soziokulturala ez da soilik indarkeriazko zuzeneko ekintzen bidez adierazten, genero desberdintasuna indartzen duten eta emakumeak indarkeriatik libratzea zailtzen duten **sinesmen, arau, jardunbide, tabu eta gizarte egituren** bidez ere adierazten da. Hori borrokatzeak eskatzen du berdintasunean hezte, maskulinitate positibo bat sustatzea, eraldaketa kulturala eta politika publiko eraginkorrak.



3. ESPARRU TEORIKOA: ISILTASUNA HAUSTEAREN GARRANTZIA

Kongoar emakumeek beren jatorriko lurraldetan zein diasporan jasandako indarkerien inguruan isiltasuna haustea ekintza politiko eta eraldatzaile bat da. Beldurrak, lotsak edo axolagabekeria instituzionalak ezarritako isiltasunak, inpunitatea iraunarazteaz gain, ezabatu egiten du emakumeen ahotsa eskubideen eta erresistentziaren subjektu aktibo gisara. Esparru horretan, ezinbestekoa da beren kontakizunen, memorien eta borrokako estrategien zentralitatea aintzatestea ezagutza sortzeko, lidergoak indartzeko eta justizia eta erreparazio prozesuak ezartzeko modu gisara. Esparru teoriko hori funtsezko hiru ardatzetan oinarritzen da: erresilientzia eta lidergo femeninoa, genero indarkeriak ikuspegi intersektional batetik, eta iruditeria kolektiboak biktimen bizipenen egituraketan duen ahalmena.

3.1. Erresilientzia: Kontzeptua eta dimentsioak

Erresilientziak, bere adierarik zabalenean, esan nahi du norbanakoek edo komunitateek kontrako egoerei aurre egiteko edo egoera horietara moldatzeko eta suspertzeko duten gaitasuna, beren ongizate psikologiko, emozional eta sozialari eutsiz eta, are, indartuz. Psikologiatik, norbanakoaren ezaugarritzat ulertu izan da usadioz, pertsonen traumak edo gertaera estresagarriak gainditzeko aukera ematen dion barneko indar antzeko bat. Dena dela, ikuspegi hori aberastu egin dute testuinguruaren garrantzia, pertsonen arteko loturak, laguntzeko egiturak eta erresilientziaren elementu erabakigarritzat jotzen diren faktore kulturalak nabarmentzen dituzten ikuspegi sozialek.

Erresilientzia honela definitu izan dute diziplina askotatik: pertsona batek edo komunitate batek gerrak, hondamendi naturalak, indarkeria edo behartutako migrazioa bezalako kontrako egoeretan erresistitzeko, moldatzeko eta eraldatzeko duen gaitasuna. Arlo psikologikoan, erresilientzia esaten zaio autoestimua, helburuaren zentzua eta erregulazio emozionala bezalako barne faktoreak eta gizarteko laguntza edo zerbitzuetarako sarbidea bezalako kanpoko faktoreak biltzen dituen prozesu dinamiko bati. Ikuspegi sozial eta komunitario batetik, berriz, erresilientzia lotuta dago krisietatik elkartasuneko, lankidetzako eta antolaketako sareak indartuz gainditzeko den gaitasun kolektiboari.

Ruziziko lautadako zein Bizkaiko kongoar emakumeen kasuan, erresilientzia ezin da norbanakoaren gaitasun gisara bakarrik ulertu, emakumeen sareak, jardunbide kulturalak, espiritualitatea eta duintasunaren aldeko borroka partekatuak lotzen dituen prozesu kolektibo bat ere bada, izan. Horren haritik, elkar lotutako hiru dimentsio identifikatu daitezke erresilientziaren inguruan:

3.1.1. Erresilientzia indibiduala

Sendotasun emozionala, espiritualitatea, fedea eta bizipen zail baten ondoren berrosatzeko gaitasuna bezalako baliabide pertsonalak biltzen ditu. Kongoar emakume askorentzat, fedetik, amatasun roletik, erantzukizun senetik eta arbasoen memoriatik sortzen den itxaropenak funtsezko eginkizuna betetzen du erresistitzeko eta bizi-ibilbidea berregituratzeko beren gaitasunean. Biktimak izateari utzi eta askotariko indarkerietatik bizirik irten direnetan bihurtzen dira.

3.1.2. Erresilientzia kolektiboa

Komunitateek zoritxarraren aurrean erresistitzeko eta eraldatzeko beren gaitasuna indartzen duten elkarrekiko laguntzarako mekanismoak sortzen dituztenean agertzen da.

- Kamanyolan eta Runingun emakumeek nekazaritza kooperatibak, zainketa komunitarioak sareak eta sendatze emozionalerako espazioak, diru-sarrerak sortzen dituzten jarduerak, aurrezki eta kreditu elkarteak (AKEK, Aurrezki eta Kreditu Elkarte Komunitarioak) herrixketan eta elkartasun-mutuak (ELMU) sortu izan dituzte gerrako indarkerien ondoren.
- Bizkaian, berriz, kongoar emakume migratzaileek elkarteak, elkarri laguntzeko sareak eta lidergo komunitarioak eratu izan dituzte diskriminazioari, gizarte isolamenduari eta oztopo instituzionalei aurre egiteko.

3.1.3. Egiturazko erresilientzia

Bizi-baldintza duinetarako, eskubide sozialetarako eta aitortza instituzionalerako aukerari buruzkoa da. Erresilientzia era hori politika publikoek eta sistema sozialek ekitatea, erreparazioa eta justizia sustatzen dutenean eraikitzen da. Emakume erresilienteek ez dute soilik erresistitzen, beren duintasuna eta beregaintasuna bermatuko duten egiturazko baldintzak ere eskatzen dituzte.

Gizarte babesa, elkarrekiko aitortza eta espazio seguruen sorrera giltzarri izan dira bi testuinguruetan erresilientzia prozesuak gauzatzeko. Erresilientzia mota hori ez da soilik biziraupenagatik bakarrik ezaugarritzen, baita justizian eta erreparazioan oinarritutako begirada batekin errealitatea eraldatzeko gaitasunagatik ere.

3.1.4. Indarkeria eta migrazio testuinguruetan jazo diren erresilientzia adibide zehatzak

- Ruzizin, gatazka armatuaren esparruan bizirik irten diren emakumeak antolatzea lortu dute krimen horiek nazioko eta nazioarteko instantzien aurrean salatzeke, estigmak ezarritako isiltasuna hautsiz horrela.



- Bizkaian, kongoar emakume migratuek ahalduz eta salaketa espazioak sortu dituzte askotariko indarkerien aurrean, indarkeriatik libre izango den bizitza baterako eskubidea eta genero-ikuspegi intersektionala izango duten politika publiko inklusiboen beharra errebindikatu.

Bi agertoki horietan, erresilientzia elkar lotuta doa borroka politikoarekin eta eguneroko erresistentziarekin, eta agerian uzten dute kongoar emakumeak ez direla “biziraule pasiboak”, eraldaketa sozialerako subjektu aktiboak direla.

3.2. Lidergo femeninoa gatazka eta migrazio testuinguruetan

Gatazka eta migrazio testuinguruetako lidergo femeninoaren ezaugarria da ikuspegi eraldatzailea duela, zainketa, gizarte kohesioa, bitartekaritza eta bizitzaren defentsa ardatz hartuta. Botere hierarkikoan eta kontrolean oinarritzen diren lidergo tradizionalen ereduaren aldean, emakumeek lidergo komunitario bat gauzatzen dute, behe-behetik eraikitzen krisientzako erantzun kolektiboak. Lidergo mota hori, sarritan, modu informalean artikulatzen da, tartean ez da ez titulurik ez aitortza instituzionalik, baina inpaktu sakona dute dinamika sozialetan nahiz komunitarioetan.

Kongoar emakumeek, bai Ruziziko lautadan, bai Bizkaian, bizi izandako indarkeria, deserrotze eta erresistentziaren bizipenetik gauzatzen dute lidergoa. Bizipen horrek ulermen zabal eta sakona eskaintzen die beren komunitateen benetako beharrei buruz, baita erantzun inklusiboak, erresilienteak eta jasangarriak sortzeko gaitasun galanta ere.

Belaunaldi arteko lidergoak dira eurenak, tokiko jakintzetatik edaten dute eta ahizpatasunean, entzumen aktiboan eta elkartasunean oinarritzen dira.

Lidergo femeninoaren fenomeno horrek askotariko aurpegiak ditu eta, maiz, nagusi diren narratibek ikusgarritasuna ukatzen diete, emakumeak biktima pasiboen rola mugatzen baitituzte. Hainbat agertokitan, ordea, eurak izan dira askotariko indarkeriei aurre eginez eraldaketa sozialeko, berreraikuntza komunitarioa eta erresistentziako prozesuen protagonistak.

Gatazka testuinguruetako lidergoaren adibideak

Ruzizi eskualdea (Afrikako Aintzira Handiak) bezala gatazka armatuak diren eskualdeetan, emakumeek funtsezko rola bete izan dituzte bitartekari informal modura, bakearen sustatzaile gisara eta bizitza komunitarioaren zaintzaile bezala. Babes espazioak, bake foroak eta justizia komunitarioaren egiturak sortu izan dituzte, baita elikadura segurtasuna bermatzeko nekazaritza kooperatibak ere. Era berean, gatazka osteko osatze prozesuak bideratu izan dituzte arbasoen jakintzetan eta tokiko praktika kulturetan oinarrituta. Gatazketatik eta gatazka ostetan agudo suspertze aldera, ahalduz ekonomikoaren ikuspegiak garatu izan dituzte, kontuan izanik eurak direla beren familien zuzkitzaile nagusiak ehun ekonomikoa suntsiturik den eremuetan, eta horietako asko lekualdatzera beharturik izan direla.



Migrazio testuinguruetako lidergoaren adibideak

Bizkaikoa bezalako migrazio testuinguruetan, kongoar emakume askok afrikar emakumeen elkartek gidatzen dituzte, ahalduz ekonomikorako egitasmoak garatzen dituzte, eskubideei eta hezkuntzari buruzko tailerrak ematen dituzte eta indarkeria instituzionalaren aurrean salaketa kanpainak bultzatzen dituzte, eurak buruan direla. Lidergo hori beste alderdi batzuetan ere adierazten da: kultura arteko bitartekaritzan, migratutako beste emakumei eskainitako akonpainamenduan, eta esperientziak partekatzen diren eta identitate kolektiboa eraikitzen eta erresistentzia gauzatzen den espazio seguruaren sorreran.

Lidergo hori hainbat eratak da:

- **Eguneroko lidergoa**, familia eta komunitate bizitzan gauzatzen dena.
- **Aktibismo politiko eta transnazonala**, nazioarteko foro, martxa eta plataformetan parte hartuz.
- Sarritan, lidergo kolektiboa da, horizontala, erresilientea eta zainketari, memoria historikoari eta justizia sozialari sakonki erroturikoa.

Toki mailan, Ruzizi lautadako emakume anonimo askok komunitate osoak eraldatu dituzte nekazaritza komunitarioaren, nesken formakuntzarako zentroen, alfabetizazioaren edo ugalketako osasunaren ekimenen bitartez.

Bizkaian, berriz, kongoar emakumezko liderrek giza eskubideen defentsa, kulturartekotasuna eta feminismo intersektionala sustatzen dituzte, era guztietako diskriminazioa borrokatuz eta akonpainamendu komunitarioa sustatuz. Begirada global bat eskaintzen diete horrela tokiko erronkei, kulturen artean zubiak eraikiz eta gizartearen ehuna indartuz.

3.3. Genero indarkeriak: Ikuspegi globala eta lokala

Genero indarkeriak fenomeno konplexua dira, dimentsio askotakoa, eta maila eta testuinguru ezberdinetan adierazten dira. Ikuspegi integral batetik, funtsezkoa da hauen artean bereiztea::

- **Zuzeneko indarkeriak**, hots, eraso fisikoak, sexualak eta psikologikoak. Indarkeria mota horiek dira agerikoenak eta salatu ohi direnak. KEDn, kongoar emakumeak gerrako arma gisara erabilitako indarkeria sistematikoaren, etxeko indarkeriaren, behartutako ezkontzen eta sexu esplotaziorako salerosketaren biktimak izan dira. Bizkaian, migratutako emakumeek bikote barruko indarkeriei, eraso publikoei, jazarpen sexualari eta indarkeria bikarioari egin behar diote aurre, askotan laguntza sare ezagatik edo oztopo instituzionalengatik edo hizkuntzak ezarritako oztopoengatik larriagotuak direnak.
- **Egiturazko indarkeriak**, baldintza sozialei, politikoei eta ekonomikoei buruzkoak, desberdintasuna eta urrakortasuna sortzen dutenak. Horien barruan sartzen dira pobrezia, hezkuntza edo osasun sistematik kanpo uztea, segurtasun juridikorik eza, laneko

diskriminazioa eta arrazismo instituzionala. Indarkeria horiek ez dira beti agerikoak, baina sakon eragiten dute eguneroko bizitzan. KEDn, gatazka luzeek, ustelkeriak eta zerbitzu publikoen kolapsoak urrakortasun femeninoa iraunarazten dute. Bizkaian, kongoar emakumeek oztopo ugari dituzte oinarritzko eskubideetarako aukeran, hala nola etxebizitza duina, egoera administratiboaren erregularizazioa edo kultura arteko ikuspegia izango duen osasun arreta.

- **Indarkeria sinbolikoak**, emakumeen menpekotasuna naturalizat jotzen duten eta egitura patriarkalak eta kolonialak indartzen dituzten estereotipoen, diskurtsoen eta iruditerien erreproduzio gisara ulertuta. Horien adierazpena kongoar emakumeen etengabeko sexualizazioan, infantilizazioan edo biktimizazioan ikusten da. Diskurtso horiek ez diote eragiten soilik beren autoestimuari, beren herritartasuna osorik gauzatzeko beren gaitasunari ere eragiten diote. Komunikabideetan, esate baterako, “afrikar emakume biktimaren” errepresentazioak pasibotasunaren eta mendekotasunaren irudia indartzen du, ekintzarako, ahalduzko, lidergorako eta erresilientziarako duten gaitasuna ezkutatuta.

Begirada intersektional batetik, zerizanezko kontua da kongoar emakumeek indarkeria bateratze bat bizi dutela aitortzea, generoa, arraza, jatorria, klase soziala, migrazio egoera eta erlijioa gurutzatzen direlako. Zapalkuntzen intersektzio horrek erantzun integralak eskatzen ditu, berezitasun horiek aitortuko eta akonpainamendu kulturalki egokiak eskainiko dituzten politika publikoekin.

3.4. Iruditeria kolektiboaren eraikuntza eta biktimengan horrek duen inpaktua

Komunikabideek, egitura eta agentzia humanitarioek, diskurtso politikoek eta adierazpen kulturelek kongoar emakumei buruz eraiki eta indartu izan duten iruditeria kolektiboak horiek **biktima isilak, kalteberak eta mendekoak** bezala finkatzen ditu, erabakitze eta lidergorako duten gaitasuna ukatzen zaielarik. Erredukzionismo horrek inpaktu errealak eta sakonak ditu::

- **Mugatu egiten du baliabide eta laguntzetarako aukera**, ez dituzketelako ikusten eskubideen subjektu aktibo modura. Erakundeek, maiz, ikuspegi asistentzialistak edo paternalistak lehenesten dituzte, emakume horien erresistentzia eta antolaketarako estrategiak kontuan hartu gabe.
- **Baldintzatu egiten ditu lankidetzarako politika publikoak eta programak**, horien “erreskaterra” zuzentzen direlako, ez horien ahalduztzera. Mendekotasuna indartzen duten praktikak erreproduzitzen dira antolaketa eta komunitate mailako gaitasunak indartu ordez.
- **Oztopoak sortzen ditu parte-hartze politiko eta sozialerako**, hitza hartzen duten edo prozesuen buruan diren emakumeak, zenbaitetan, zalantzan jarriak direlako edo ezikusia egiten zaielako, ez datozelako bat eurengandik espero den biktima ereduarekin.



- **Estigmak eta autobazterketa erreproduzitzen ditu** komunitateen barruan bertan, emakumeek narratiba horiek barneratzen dituztelako, amets egiteko eskubiderik ez dutela, botere guneak okupatzeko edo beren burua minaz harago ikusteko eskubiderik ez dutela sentitzen dutelako.

Iruditeria horri kontra egiteko, premiazkoa da kongoar emakumeak **subjektu politiko, lider erresiliente** eta aldaketarako **eragiletzat**, beren jakintzetatik eta ibilbideetatik bakea eta justizia eraikitzeke eta komunitatea egiteko gaitasunak dituzten subjektutzat hartuko dituzten **eraldaketa narratibo** bat sustatzea.

Eraldaketa hori alor hauetan oinarritu behar da:

- **Lehen pertsonako horien ahotsak aitortuta**, ez bakarrik “onuradun” modura, baita beren borroken aztertzaile, parte-hartzaile, proposatzaile eta bozeramaile modura ere.
- **Irudiaren eta lekukotasunaren erabilera etikoa**, minaren pornografia saihestuz eta indarra, sormena, itxaropena eta eraldaketa erakusten duten narratiben alde eginez.
- **Espazio instituzional, akademiko eta sozialetako parte-hartze aktiboan**, euren bizitzetara eragiten dien politika, programa, jardunbide eta erabakietan eragin dezaketelarik.
- **Memoria kolektiboa**, minari beste zentzu bat emateko eta kontinente barruko nahiz kanpoko kongoar emakumeen duintasunari, erresistentziari eta historiari ohore egingo dioten kontakizunak eraikitzeke tresna gisara.

4. IRUDITERIA KOLEKTIBO BIRBIKTIMIZATZAILEA DESEGITEN

“Ndalak (2021) ohartarazten duen moduan, kontakizun kolonialek afrikar emakumeak hautemateko moduan eragiten jarraitzen dute.” Kongoar emakumeei buruz nagusi den iruditeria kolektiboa, tokiko testuinguruan (Bizkaian, kasu) zein nazioartekoan, homogeneousaturik –beti biktimak, ahalmenik gabeak– aurkeztu dituzten diskurtso mediatiko, humanitario eta akademikoek moldekatu izan dute. Ikuspegi erredukzionista horrek ikusezin egiten ditu erresistentziarako, antolaketarako eta lidergorako duten gaitasuna eta, halaber, baztertze, arrazismo eta paternalismo dinamikak betikitzen ditu. Iruditeria hori desegiteak esan nahi du nagusi diren narratibak era kritikoan aztertzea, komunikazio esparruak ezbaian jartzea eta alternatiba etiko, parte-hartzaile eta emantzipatzaileak eraikitzea.

4.1. Kongoar emakumeei buruz nagusi diren narratibak

Egunkarietako erreportajeetan, GKEren kanpainetan eta azterlan akademiko batzuetan azaltzen diren narratiba hegemonikoek indartu egin dute “afrikar emakume biktima” irudia, batik bat, kongoar emakumeen kasuan. Errepresentazio horiek hiru ardatz problematikotan artikulatzen dira:

- **Biktimizazio betiraunkorra:** Sufrimendua azpimarratzen da ahalmenaren gainetik, eta subjektu pasibo gisara azaltzen dituzte, kanpoko laguntzaren mende direnak.
- **Exotizazioa edo deshumanizazioa:** Zenbaitetan, bestetasun kulturala indartzen duten irudiak erabiltzen dira, beren gorputzak edo tradizioak testuingururik gabe eta begirunerik gabe kosifikatuz.
- **Ahotsak isilaraztea:** “Eurei” buruz hitz egiten da, baina oso gutxitan “eurekin”. Kanpoko interpreteek (kazetariak, kooperanteak, ikertzaileak) baldintzatzen dute, askotan logika eurozentrikoetatik itzultzen baitituzte haien esperientziak.

Errepresentazio horiei buruzko adibideak aurki ditzakegu KEDko indarkeria sexualari buruzko dokumental sentsazionalistetan, emakumeak negarrez edo gutxi jandako haurrak besoetan dituztela erakusten dituzten kanpaina humanitarioak edo “kasuaren azterketa” ikuspegitik besterik ez dituzten jorratzen testu akademikoak, haien protagonismo politikoa aintzat hartu gabe.

Narratiba horiek mugatu egiten dute eskubideen subjektu aktibo gisara dagokien aintzatespena, eta baldintzatu egiten dituzte erakundeek eta gizarte zibilak erantzun politikoak, sozialak eta komunikaziokoak prestatzeko duten era.

4.2. Komunikabideen eta GKEren rola

Komunikabideek eta GKEk egiteko garrantzitsua betetzen dute iruditeria kolektiboaren eraikuntzan. Eragile horietako askok kongoar emakumeek pairatzen dituzten indarkeriei ikusgarritasuna

emateko asmoa badute ere, haien birbiktimizazioa indartzen duten akatsetan erortzen dira askotan.

Arrisku nagusiak:

- **Sufrimenduaren erredukzionismoa eta ikusgarritasuna**, fokua indarkeria esplizitueta jartzen dela, ez osatze (banakakoa edota komunitarioa), erresistentzia edo ahalduntze prozesuetan.
- **Irudien erabilera instrumentala**, baimen informaturik gabe edo horiek hartu izan ziren testuingurua azaldu gabe.
- **Narratibaren monopolizazioa**: GKEk beren “lorpenak” kontatzen dituzte tokiko lidergoak azaldu gabe edo bidezko ordezkaritza bat sustatu gabe.

Baina ikuspegia aldatzeko **ahalegin baliotsuak ere ageri dira**, bai komunikabide independenteetatik, bai ikuspegi dekolonial, feminista eta interseksionaleko GKEetatik. Jardunbide on batzuek barne hartzen dute hau::

- Lehen pertsonako lekukotzak, esperientzien eta ikuspegi aniztasuna aintzatetsiz.
- Salaketa kongoar emakumeek lideratutako proposamenekin, lorpenekin eta gizarte eraldaketako adibideekin batera ematea.
- Kontakizunen eraikuntza kolektiboan kolaboratzea, egiletza narratiboa eta kode kulturalak errespetatuz.
- Emakumeen beren komunikabideetarako sarbidea sustatzea; irrati komunitarioa, sare sozialak, dokumental parte-hartzaileak.

4.3. Agentibitatea eta duintasuna sustatzeko narratiba alternatiboak

Iruditeria birbiktimizatzailea desagiteak ez dakar soilik kritika bat, **narratiba berrien sormen aktiboa** ere badakar, narratiba etiko eta askatzaileak, alegia. Jarraian, errepresentazio bidezkoagoak eraikitze giltzarri diren estrategiak aurkezten dira:

- **Komunikazio parte-hartzailea**: Emakumeak beren kontakizunen egilekideak izango diren edukiak sortzea. Hor sar daitezke ikuspegi dekolonialeko kazetaritza komunitarioa, bideo parte-hartzailea edo podcastinga.
- **Arte komunitarioa eta adierazpen kulturalak**: Pintura, antzerkia, dantza, argazkigintza edo musika tresna ahaltzuak dira ikuspegi egokitu eta ahaldundu batetik bizipenak, balioak eta erresistentziak transmititzeko. Arteak minari beste esan nahi bat emateko eta memoria eta eraldaketarantz bideratzeko aukera ematen du.
- **Lehen pertsonako lekukotzak**: Kongoar emakumeen ahotsei zuzenean ikusgarritasuna ematea espazio publiko, akademiko eta mediatikoetan. Lekukotza ematea, ez bakarrik bizitakoari buruz, baita eraikitakoari, sendatutakoari eta amestutakoari buruz ere.
- **Aktibismo mediatikoa eta sare sozialak**: Afrikako emakumeek kudeatutako plataformak sustatzea, beren historiak kontatze, bidegabekeriak salatze eta lorpenak partekatze aldera.



Femme au Fone, African Feminism bezalako adibideek kontinenteko emakumeak diskurtso publikoaz nola doazen jabetzen erakusten dute.

- **Komunikazioari buruzko formakuntza kritikoa:** Tresnak eta prestakuntza prozesuak erraztea migratutako emakumeek horiek azaltzen dituzten diskurtsoak azter ditzaten, eduki propioak sortu ditzaten eta ezarritako zentzuen kontra egin dezaten.

Laburtuz, iruditeria kolektibo birbiktimizatzailea desagiteak **norberaren gaineko kontakizunerako eskubidearen**, afrikar subjektu politikoaren aitortzaren eta duintasuna, beregaintasuna eta justizia epistemikoa lehenetsiko dituen etika komunikatibo baten alde egitea dakar berekin.

5. GENERO INDARKERIAREN KONTRAKO BORROKA-ESTRATEGIAK

Genero indarkeriaren kontrako borrokak, batez ere gatazka armatuak, migrazio behartuak eta egiturazko arrazismoak zeharkatutako testuinguruetan, askotariko estrategia iraunkor eta eraldatzaileak eskatzen ditu. Kongoar emakumeek erantzun berritzaileak garatu izan dituzte, zaintzea, erresilientzia kolektiboa, eragin politikoa eta laguntzeko sareak sortzea integratzen dituenak. Atal honetan, Ruzizin (KED) eta Bizkaian (Euskadi) jazo diren erresistentziako adibideak aurkezten dira, eta baita begirada intersektional eta dekolonial batetik ekintza feminista globala indartzeko proposamen batzuk ere.

5.1. Tokiko estrategiak Ruzizin: Laguntza sareak eta erresistentzia

Ruzizi lautadako eskualdean, Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdean, emakumeek era askotariko indarkeriak bizi dituzte: gatazka armatuak, eskualde barruko lekualdaketak, egiturazko pobrezia eta indarkeria sexual sistematikoa. Baina, etsipenari eman ordez, **erantzun komunitario ahaltzuak** sortu izan dituzte, hala nola:

- **Emakumezko zirkuluak arreta psikologiko komunitariorako:** Topaketarako espazio seguruak, non emakumeek bizipenak partekatzen, kolektiboki osatzen eta erresilientzia emozionaleko mekanismoak garatzen dituzten. Zirkulu horiek, halaber, alfabetizaziorako, prestakuntza juridikorako eta ahizpatasuna eraikitzeke espazioak dira.
- **Musika, dantza eta ahozko kontakizuna osatzeko eta memoria kolektiborako bitarteko modura:** Beren kultur adierazpideen bidez, emakumeek eraldatu egiten dituzte beren sufrimenduko bizipenak, erresilientzia prozesuetan bihurtuz. Hala, indartu egiten da beren identitate kolektiboa eta ehun soziala berreraikitzen laguntzen du. Dantza tradizionalak, bereziki, dimentsio berri bat hartzen du ahalduentzerako praktika, belaunaldi arteko transmisiorako eta bizitzaren ospakizun modura.
- **Bakearen eta justizia komunitarioaren tokiko batzordetan parte-hartzea:** Sistema judizial funtzional baten ezean, emakumeak bitartekari, adiskidetzailer, epaile komunitario edo auzoetako lider gisara aritu izan dira ikuspegi errestitutibo batetik familietako, etnietako eta lurrarekin lotutako gatazkak konpontzeko.
- **Ausardiaren zirkuluak:** Beste emakume batzuen ahotsa altxatzeko legimititatea bakarrik nahikoa ez den eskualde batean, emakumeak defentsa komunitarioko taldeetan (GPC) antolatzen dira tokiko agintarien aurrean beren ahotsa entzuna izan dadin, komunitatea liderrak diren emakumeen aktibismoaren geroz eraso nabarmenagoen kontrako erasoetatik babeste aldera. Emakumeek bat egitean, murriztu egiten da beren urrakortasuna eraso selektiboen aurrean eta ekintza sinergikoaren indar bat eratzen dute.



- **Nekazaritza kooperatibak eta bizimodua ateratzeko sare ekonomikoak:** Prekarietatearen aurrean, emakume askok aurrezki eta kreditu elkarteak (AVEC, villageoises d'épargne et de crédit), elkartasuneko mutuak (MUSO, mutuelles de solidarité) eta ekoizpen kolektiborako sareak sortu izan dituzte elikadura segurtasuna eta autonomia ekonomikoa bermatu ahal izateko, biak ala biak funtsezko elementuak direna mendekotasunaren eta indarkeriaren zikloa hautsi eta garaizko suspertze bat lortzeko.

5.2. Bizkaiko esperientziak: Komunitate erresilienteen eraikuntza

Euskal migrazioaren testuinguruan, kongoar emakumeek –beste afrikar emakume batzuen moduan– indarkeria instituzionala, arrazismo sistemikoa, lan prekarietatea eta gizarte eskusiboa bizi dituzte. Horren aurrean, beren komunitateak indartzen dituzten **eguneroko eta antolakuntzako erresistentziako estrategiak ehundu dituzte:**

- **Ahalduntzeko eta autodefentsa feministako tailerrak:** Formakuntza eskubideetan, autoestimuan, lidergo trebetasunetan eta osasun emozionalean. Espazio horiek duintasun pertsonal eta kolektiboa berreraikitze aukera emate dute.
- **Arrazismoaren kontrako kanpainak eta ekintza publikoak:** Parte-hartze aktiboa arrazismo instituzionalaren kontrako mobilizazioetan, salaketa komunikabideen aurrean, eta emakume migratuen eskubideei buruzko sentsibilizazio kanpainak.
- **Heziketako eta kultura arteko egitasmoak:** Jarduerak ikastetxetan, liburategietan edo gizarte etxetan elkarriketa kulturala sustatzeko, afrikar diasporaren ekarpenak ikusarazteko eta euskal gizartearekin zubiak eraikitze.
- **Espazio seguruak eta emakumeen artean zaintzeko sareak:** Elkar laguntzeko taldeak, non baliabideak, migrazio esperientziak, laguntza emozionala eta laguntza praktikoa (izapideetan edo seme-alabak zaintzen laguntzea, esaterako) partekatzen diren.
- **Aliantzak elkarte feministekin, antirrazistekin eta giza eskubideetakoekin:** Aliantzek horiek politikoki eragiteko, baliabideetara sartzeko, prestakuntza prozesuak indartzeko eta askotariko indarkeriei era artikulatuan aurre egiteko sinergiak sortzeko aukera ematen dute.

5.3. Ekintza global eta interseksional baterako proposamenak

Genero indarkerien kontrako borroka ezin da mugatu unean uneko esku-hartzeetara edo tokiko testuinguruetara. **Mumengiren (2024)** berehalako bakerako proposamenen ildotik, ezinbestekoa da eskualde mailako diplomazia eta adiskidetzeko mekanismoak indartzea. Era berean, zapalkuntzaren askotariko erak aitortuko dituzten eta **afrikar emakumeen ekintza kolektiborako**



gaitasuna indartuko duten **estrategia transnazionalak, interseksionalak eta dekolonialak** eraikitzea komeni da:

5.3.1. Intzidentzia politikoa eta eraldaketa instituzionala

- Ikuspegi interseksionalarekin (generoa, arraza, klasea, migrazioa) lege eta politika publikoak sustatzea.
- Emakumeen ikuspegia erakundeen maila guztietako erabaki hartzeetan (tokikoa, estatuko, nazioartekoa) txertatzea.
- Migratutako emakumeen programak eta erakundeak laguntzeko berariazko aurrekontuak eskatu, gizarte bidezkoagoak, berdinzaleagoak eta askotarikoagoak sortzen betetzen duten funtsezko betekizuna aitortuz.

5.3.2. Nazioarteko lankidetzaren eraldatzailea

- Asistentzialismoaz harago joan eta elkarrekikotasunean, elkarrekiko aitortzan eta tokiko erakundeen subiranotasunean oinarritutako harremanak eraiki.
- Emakumeen formakuntza, lidergo eta autonomia ekonomikoaren prozesuak lagundu beren jatorriko lurraldeetan eta diasporan.
- Afrikan emakumeek kudeatutako proiektuak indartu, ziurtatuz eurak direla diseinatzen, exekutatzen eta esku-hartzea ebaluatzen dituztenak.

5.3.3. Afrikako emakumeen sare transnazionalak

- PAWLO, AWID bezalako plataformak edo COCAFEM/GL bezalako Hegoalde Globaleko sare feministak indartu, Afrikatik Europarainoko borrokak konektatzeko.
- Kongoar emakumeen artean diasporan zein jatorriko beren lurraldetan elkartruckerako espazio gehiago sortu eta dauden sareak indartu, esaterako Rien Sans Les Femmes Mugimendua, GEDROFE, FFC, SPR, etab., jakintzak, estrategiak eta elkarrekiko laguntza partekatuz.

5.3.4. Formakuntza eta antolakuntza indartzea

- Arbasoen jakintzak, militantzia garaikidea eta tresna teknikoak (kudeaketa, intzidentzia, komunikazioa) uztartuko dituzten afrikar eskola feministak bultzatu.
- Diasporako afrikar emakumeen elkarteak erakunde mailan indartzeko berariazko funtsak sortu horien jasagarritasuna, autonomia eta proiektzio politikoa bermatzeko.

Resumiendo, las estrategias de lucha contra las múltiples formas de violencia y por el bienestar integral de las mujeres deben nacer desde el protagonismo de quienes las viven y resisten. En el caso de las mujeres congoleñas, tanto en la llanura de Ruzizi como en Bizkaia, estas respuestas colectivas revelan una creatividad política arraigada en la experiencia, una ética del cuidado profundamente comunitario y una capacidad de resistencia que transforma. Reconocer y apoyar estas estrategias no es solo una cuestión de justicia, sino también un compromiso con el reconocimiento del potencial transformador de las mujeres. Solo así será posible construir un futuro común más digno, equitativo y libre de violencias.

6. ANALISIA ETA GOGOETAK

Atal honetan, azterlanaren aurkikuntzen sintesi kritiko bat aurkezten da, kongoar emakumeen erresilientzia eta tokiko testuinguruetan (Ruziziko lautada eta Bizkaia) haien lidergoen ondorio eraldatzaileak bultzatzen dituzten faktoreak jorratuz. Halaber, azterlanaren muga metodologikoak eta hurrengo ikerketa eta ekintza sozialeko lanetarako zabaltzeko dauden aukerak ere aztertzen dira.

6.1. Banakako eta taldeko inkesten emaitzak

Banakako eta taldeko inkesten analisiak bide eman zuen Ruziziko lautadako eta Bizkaiko kongoar emakumeen erresilientziari eta lidergoari buruzko pertzepzio sakonak biltzeko. 12 elkarrizketa sakonen eta bi talde fokalen bidez, giltzarri diren aurkikuntza batzuk azaleratu ziren:

- **Lidergo komunitarioari buruzko pertzepzioa** Parte-hartzaile gehienek (%80 inguru) lidergo era batekin identifikatu zuten etxeko, laguntza sareetako eta gatazken bitartekaritzako euren eguneroko lana, nahiz eta hasieran asko ez ziren identifikatzen hitz horrekin. “Zaintzeko eta antolatzeko” duten gaitasuna nabarmendu zuten komunitatean eragiteko ardatz modura.
- **Erresilientziako faktoreak** Emakumeek espiritualitatea, berdinen arteko laguntza eta arbasoen memoria aipatu zituzten indar-iturri nagusi bezala. Taldeko inkestetan, elkartasun femeninoa izan zen errepikatuena bizitako indarkeriei eta migrazioari aurre egiteko elementu baliotsuen gisara.
- **Erronka komunak.** Ruziziko lautadan, inkestatutakoen %70ek segurtasunik eza eta oinarrizko baliabideen gabezia adierazi zituzten zirela beren oztopo nagusienak. Bizkaian, parte-hartzaileek diskriminazio arrazial eta instituzionala nabarmendu zituzten, baita tituluak aitortzeko eta enplegu duin bat lortzeko zailtasunak ere.
- **Komunitatean inpaktua** Banakako zein taldeko elkarrizketetan, agerian geratu zen lankidetzarako beren ekimenek, zaintzeko sareek eta ahalduntzeko tailerrek etxeko indarkeria murrizten eta tokiko ehun soziala indartzen lagundu izan dutela.

Emaitza horiek berretsi egiten dute kongoar emakumeek, indarkeriazko eta migrazioko testuinguruak gorabehera, lidergo eraldatzaile bat gauzatzen dutela, zainketa, antolaketa eta ekintza politikoa uztartzen dituen, aldaketa ukigarriak eraginez beren inguru hurbilenean.

6.2. Kongoar emakumeen erresilientzia giltzarri diren faktoreak

Kongoar emakumeek askotariko indarkerien aurrean erresistitzeko, berreraikitze eta prozesu komunitarioak lideratzeko duten gaitasunaren elementu komunak identifikatu dira azterlanean zehar. Faktore horiek ez diete soilik bizirautea ahalbidetzen, **indar, zentzu eta eraldaketa kolektiborako iturri ere badira:**

- **Espiritualitatea bizitzaren gidari**

Kavenek (2023) jasotako esperientziak bistan uzten du fedea eta laguntza sareak funtsezko ardatzak direla gatazka osteko berreraikuntza sozialean. Sufrimendua eta ziurgabetasuna nagusi diren testuinguruetan, espiritualitatea, bai bere forma erlijiosoetan (kristautasuna, afrikar espiritualitatea), bai arbasoekiko konexioaren jardunbide komunitarioen bidez, arnasbide, orientazio etiko eta kohesioko iturri modura aritzen da. Fedeak, errituak eta praktika espiritualek minari beste zentzu bat ematea eta kaosaren erdian itxaropena zaintzea ahalbidetzen dute.

- **Familien, komunitateen eta emakumeen sareak.**

Belaunaldi arteko elkartasuna, auzotarren arteko loturak eta emakumeen taldeak ezinbesteko egiturak dira indarkeriari aurre egiteko, baliabideetarako aukera izateko eta zainketako prozesu kolektiboak eusteko. Sare horiek babeserako, ekonomia solidarioetarako, jakintzak elkartrukatzeko eta osatze emozionalerako sistema informal gisara aritzen dira.

- **Hezkuntza eta formakuntzarako sarbidea.**

Hezkuntza prozesuetarako –formalak zein ez-formalak– aukera izan duten emakumeek gaitasun handiago erakutsi ohi dute beren komunitateetan eragiteko, ordezkaritza espazioetan aritzeko eta lidergoa segurtasun handiagoz gauzatzeko. Eskubidetan, generoan, osasunean, komunikazioan edo ekonomian duten formakuntzak indartu egiten du haien beregaintasuna.

- **Memoria kolektiboa eta identitate kulturala.**

Kongoar historian, hizkuntzan, sinboloetan eta balio kulturetan errotzea identitatearen berrespenerako euskarri da, batik bat, migrazio testuinguruetan. Beren burua oinordetza kultural duin baten eramaile bezala ikusteak deshumanizazioari, arrazismoari eta deserrotzeari aurre egiten laguntzen du.



6.3. Lidergo femeninoak aztertutako komunitateetan duen inpaktua

Bafouolok (2023) azaldutako lidergo adibideek kongoar emakumeek esparru sozial eta politikoetan duten gaitasun eraldatzailea erakusten dute. Kongoar emakumeek gauzatutako lidergoak eragin zuzen eta iraunkorra du beren ingurunetan. Lidergo hori maila askotan (etxean, komunitatean, politikan, sinbolikoan) adierazten da, sarritan instituzioetatik kanpo, eta eguneroko errealitateak era sakonean eraldatzen ditu. Inpaktu garrantzitsuenen artean, hauek nabarmentzen dira:

- **Familia barruko eta komunitateko indarkeria gutxitzea**

Emakumezko liderrek gatazkak konpontzeko jardunbide indarkeriarik gabeak inplementatzen dituzte, errespetuko balioetan hezteak sustatzen dute eta bitartekari eginkizuna betetzen dute familien eta komunitateen arteko eztabaidetan. Haien esku-hartzeari esker, ikusi da gutxitu egin direla etxeko indarkeriaren eta komunitateko borroken kasuak, bereziki, Ruzizi eskualdeko Kamanyola eta Runingu eremuetan.

- **Gizarte kohesioaren hobekuntza**

Talde ezberdinak (etnikoak, belaunaldi artekoak, migratzaileak) batzeko eta elkarriketa, lankidetzak eta konfiantzako espazioak sustatzeko duten gaitasuna gako izan da gerrak edo erbesteratzeak zatitutako gizarte ehunen berreraikuntzan.

- **Diru-sarrerak sortu eta beregaintasun ekonomikoa**

Emakumeek lideratutako ekimenen bidez (kooperatiboak, ekintzaileak, trukerako eta ekoizpen kolektiborako sareak), diru-sarrera egonkorak dituzte familia askok, eta horrek gutxitu egiten du haien urrakortasuna eta autonomia handiago eskaintzen die indarkeria ekonomikoaren edo bikotearekiko mendekotasun egoerei aurre egiteko.

- **Aitortza publikoa eta gizarte legitimitatea**

Aitortza falta baldin badago ere oraindik instituzioen aldetik, emakumeak erreferente moralizat, lider naturalizat eta aldaketarako ezinbesteko eragilekat hartzen dituzte komunitate askotan. Bizkaian, aitortza hori instituzioetara ere heltzen da, aitortzen hasi baitaie inklusioaren, kultura arteko bitartekaritzaren eta eraldaketa sozialeko prozesuetan egiten duten ekarpena.

6.4. Azterlanaren mugak eta etorkizuneko perspektibak

Ikerketa-ekintza parte-hartzaileko prozesu guztietan bezala, azterlan honek ere baditu bere **muga kontestual, metodologiko eta logistikoak**, eta beharrezkoa da hori aitortzea etorkizunean prozesu sakonago eta zabalagoetara urratsak emateko bidean. Hauek dira:

- **Eremu batzuetarako sarbide murriztua segurtasun arrazoiengatik**
Ruziziko lautadan, gatazka armatuek, behartutako lekualdatzeek, talde armatuen presentziak eta defentsako tokiko indarrek zaildu egin zuten komunitate batzuetara heltzea eta informazioaren bilketa sistematikoa. Parte-hartzaileen eta taldearen segurtasuna lehenetsi zen, eta horrek baldintzatu egin zuen landa-lanaren zati bat.
- **Kultura arteko itzulpenaren beharra**
Hizkuntza (swahili, lingala, frantsesa, gaztelania) eta kultura arloan diren ezberdintasunek interpretaziorako eta bitartekaritzarako ahalegin bat eskatu zuten, lekukotzen adierazpen leiala bermatze aldera. Metodologia zaindu bazen ere, baliteke eduki sinbolikoaren edo emozionalaren zati bat prozesuan galdu izana.
- **Mugak denbora eta baliabideen aldetik**
Landa-lanerako eta analisirako izan zen denborak ez zuen utzi epe ertainerako lidergoen bilakaera edo inpaktu komunitarioak erakutsi dituen azterlan longitudinalik garatzen. Halaber, baliabide teknikoaren gabeziak mugatu egin zuen ikusentzunezko tresna parte-hartzaileen erabilpena.

Ikerketa eta ekintzarako etorkizuneko perspektibak

- **Azterlana beste harrerako herrialde batzuetara zabaltzea** (Frantzia, Belgika, Erresuma Batua, Kanada), hor ere kongoar diasporako komunitateak daudelako, lidergo femeninoetan diren antzekotasunak eta testuinguruetan diren ezberdintasunak identifikatzeko.
- **Azterlan longitudinaletan sakontzea** emakumeek gatazken konponketan, bakearen eraikuntzan eta iruditeria sozialen eraldaketan duten inpaktuari buruz.
- **Metodologia bisualak, artistikoak eta komunitarioak gehitzea**, adibidez ahots-argazkia, kartografia soziala edo foro-antzerkia, narratiba konplexuago eta sentikorragoak jasotzeko.
- **Ezagutza azterlanaren protagonista izan diren komunitate berei** itzultzeko espazioak sortzea, tailerren, material pedagogikoen, plataforma digitalen eta emakume liderren nazioz gaindiko topaketen bidez.



6.5. Gogoeta

Kongoar emakumeek erresistentziatik, mina ekintza kolektibo batean eraldatzeko gaitasunetik, zainketatik eta sormenetik gauzatutako lidergoa eraldaketa sozialerako ezinbesteko iturria da. Egunerokotasunetik, komunitarioa eta espiritualak denetik aldaketak sortzeko duten gaitasuna aintzatestea, dokumentatzea eta babestea duintasunaren eta itxaropenaren irakaspen bat da. Lidergo horiei ikusgarritasuna emanez eta indartuz, ez dira desberdintasun historikoak bakarrik konpontzen, justizia global gizatiarrago, feminista eta interkonektatu baterako bideak zabaltzen dira.

7. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Kongoar emakumeek erresistentzia, zainketa eta sormen bidez landutako lidergoa eraldaketa sozialerako ezinbesteko iturria da. Mina ekintza kolektibo batean bihurtzeko duten gaitasuna aitortzea, dokumentatzea eta babestea duintasunaren eta itxaropenaren irakaspen bat da. Lidergo horiei ikusgarritasuna emanez eta indartuz, ez dira desberdintasun historikoak bakarrik konpontzen, justizia global gizatiarrago, feminista eta interkonektatu baterako bideak zabaltzen dira.

Puntu honetan, ikerketa-ekintza prozesuaren aurkikuntza nagusiak eta horietatik eratorritako proiektzioak jasotzen dira. Jasotako lekukotasunetatik eta egindako analisietatik abiatuta, kongoar emakumeek, bai Ruziziko lautadan, bai Bizkaiko diasporan, bakea eraikitzen eta sendotzen, erresilientzia komunitarioan eta eraldaketa sozialean betetzen duten egitekoari buruz ikasitako irakaspenak sintetizatzen dira.

Konklusioak (7.1) atalak azterlanetik azaleratzen diren ideia nagusiak laburtzen ditu, emakume horiek gatazkaren, migrazioaren eta bazterketaren bizipena lidergoko eta zainketa kolektiboko jardunbideetan bihurtzeko duten gaitasuna nabarmentzen delarik.

Gomendioak (7.2) atalak erakunde publikoei, erakunde sozialei, komunikabideei eta espazio akademikoei zuzendutako ekintza lerroak proposatzen ditu, lidergo horiek aitortzen eta sendotzen dituzten politikak, narratibak eta programak indartzeari begira.

7.1. Konklusioak

Azterlan honek kongoar emakumeek gatazka armatuko testuinguruetan zein Bizkaiko migrazio eta errotze prozesuetan bakea eraikitzen, erresilientzian eta eraldaketa sozialean duten funtsezko egitekoa dokumentatzeko eta ikustera emateko aukera eskaini du. Biktima pasibo hutsak izatetik urrun, emakume horiek eguneroko erresistentziako, lidergo komunitarioko eta eragile politikoko erak hezurmamitzen dituzte, sarritan diskurtso ofizialek eta mediatikoek baztertzen dituztenak.

1. **Ruzizi lautadako eta Bizkaiko kongoar emakumeak eraldaketa sozialeko subjektu aktiboak dira.** Zainketa kolektibotik espazio komunitarioetako parte-hartzeetarainoko beren eguneroko jardunbideen bitartez, lidergo isila baina ahaltsua gauzatzen dute, gizarte kohesioan, indarkerien prebentzioan eta etorkizun bidezkoagoak eraikitzen laguntzen dutenak.
2. **Beren bizipenek erakusten dute posible dela erresistitzea eta lideratzea, askotariko indarkeriak gorabehera.** Gerrak, arrazismoak, matxismo instituzionalak, prekarietate ekonomikoak eta kultur deserrotzeak markatutako testuinguruaren erdian, emakume horiek



beren tresnak aktibatzen dituzte: laguntza sareak, espiritualitatea, arbasoen jakintzak, heziketa, artea, besteak beste.

3. **Premiazkoa da nagusi diren narratibak aldatzea beren duintasuna, sormena eta indarra islatzeko.** Ahotsik gabeko biktimetara murrizten dituzten errepresentazioek betikotu egiten dute beren ikusezintasuna eta zaildu egiten dute eskubideetarako, aitortzarako eta baliabideetarako duten aukera. Lider, bake sortzaile, hezitzaile, ekintzaile eta komunitate ehunaren zaintzaile gisara azalduko dituzten narratibak bultzatu behar dira.
4. **Migrazio testuinguruak erronkak dakartza, baina baita ekintza kolektiborako aukerak ere.** Kongoar emakumeek sareak ehundu dituzte Bizkaian beste kolektibo feminista, antirrazista eta ekonomia sozialeko batzuekin batera. Aliantzak horiek funtsezkoak dira elkarrekiko aitortzako, kulturartekotasun kritikoko eta erakundeen eraldaketako prozesuetan urratsak emateko.
5. **Emakume horiek garatzen dituzten erresistentzia eta zainketako jardunbideak gako unibertsalak eskaintzen dituzte.** Entzutean, komunitatean, erresilientzian eta memoria kolektiboan oinarritutako lidergo eredua inspirazio iturri izan daiteke ekintza politikorako era gizatiarrago, etikoago eta eraldatzaileagoentzat.

*Etorkizuneko ikuspegi hori bat dator **Nshokanok (2021)** Kongo berri eta itxaropentsu bat irudikatzeko egindako deiarekin.*

7.2. Gomendioak

Azterlanean egindako aurkikuntzetan oinarrituta, gomendio hauek proposatzen dira gizarte antolakunde, administrazio publiko, instituzio akademiko eta komunikabideentzat:

1. Politika publiko eraldatzaileak

- **Ikuspegi intersektional, dekolonial eta generokoa** txertatu migrazio, inklusio, lankidetzeta eta giza eskubideen politikak egiterakoan.
- Afrikar emakume migratzaileei **aldaketako eragile** direla aitortu, ez asistentziaren onuradun hutsak.
- Laguntza humanitarioa kokatzen lagundu emakumeek ekintza humanitarioan tokiko eragile gisara duten rola, gaitasunak eta lidergoa indartzeko.
- Zerbitzu publikoetarako sarbidea **kultura arteko bitartekaritza egokiaren** bidez bermatu, estigmatizaziotik edo diskriminazio instituzionaletik aske.
- Emakumeen beharrak eta urrakortasunak modu jasangarrian murrizteko lotura hirukoitzari lehentasuna eman, ekintza humanitarioek epe luzera begirako garapena eta bakea, eta alderantziz, bultzatuko dituztela zainduz.

2. Emakume “migratzaileek” gidatutako antolakundeak lagundu



- Afrikar emakumeen elkarleen formakuntza, profesionalizazio eta jasagarritasun prozesuak finantzatu eta indartu.
- Erabakiak hartzeko eta ordezkaritza instituzionaleko espazioetan parte hartzea erraztu.
- Beren eskualderako bakearen negoziazio esparruetan egotea bultzatu.
- Diasporako eta jatorriko herrialdeetako afrikar emakumeen arteko elkartrukea eta nazioz gaindiko sareak eraikitzea sustatu.

3. Eraldaketa narratiboa eta komunikatiboa

- Kongoar emakumeak eragiteko gaitasuna, duintasuna eta jakintza propioak dituzten subjektutzat azaltzen dituzten **komunikazio jardunbide egokiak** sustatu komunikabideetan, GKEetan eta kanpaina publikoetan.
- **Komunikazio parte-hartzaileko**, arte komunitarioko, antzerki sozialeko, zinemako, argazkigintzako eta lehen pertsonako lekukotasunen ekimenak bultzatu eraldaketa sozialeko eta ahalduntzeko tresna gisara.

4. Ezagutza egokitua ikertu eta sortzea

- Afrikar emakume migratzaileen ezagutza-iturri zilegi modura **tokiko jakintzak eta bizipenak aitortzen** dituzten azterlan parte-hartzaileak bultzatu.
- **Ezagutza elkarlanean ekoizteko** espazio akademiko eta pedagogikoak sortu, emakume protagonistak ikertzaile, irakasle eta trebatzaile arituz.
- Neskatzentzat eta tokiko emakume liderrentzat berariazko bekak eskatu gako diren gaietan espezializatu daitezen, adibidez, eraldaketarako lidergoan, gatazkak kudeatu eta konpontzen, generoa eta inklusioan, zientzia teknikoan ikasleak, etab.

5. Kultura arteko topaketa eta elkarriketa espazioak

- **Espazio seguruak, mistoak eta ez-mistoak** sortu eta indartu emakumeek esperientziak, trebakuntza, osatze kolektiboa eta aliantzak ehuntzea parteka ditzaten.
- Haien **lidergoei ikusgarritasuna** emango dioten eta emakumeen eskubideen eta justizia globalaren aldeko askotariko borrokak konektatuko dituzten topaketak sustatu eskualde, estatu eta nazioarte mailan.

7.3. Gogoeta

Azterlan honek beste toki batetik begiratzera gonbidatzen du: ez errukitik, baizik eta begirunetik; ez biktimizaziotik, baizik eta aliantzatik; ez asistentzialismotik, baizik eta justiziatik. Bazter ikusezinetan ere mundua eraldatzeko gai diren lidergoak loratzen direla oroitarazten digute kongoar emakumeek.

8. ERANSKINAK

Atal honek azterlanean aurkeztutako informazioa babesten, dokumentatzen eta zabaltzen duten material osagarria biltzen du. Hauek jasotzen ditu: **adierazpen etikoa**, **funtsezko hitzen glosarioa**, **egindako elkarrizketak** eta Ruziziko lautadan eta Bizkaiko diasporan kongoar emakumeen bizipenak, erresilientzia estrategiak eta lidergoa erakusten duten ikusizko materiala. Eranskin horien asmoa da gardentasun metodologikoa, ebidentzia enpirikoa eta gogoetarako, intzidentzia politikorako eta ekintza komunitariorako baliabide baliagarriak eskaintzea.

8.1. Adierazpen Etikoa eta Hitzen Glosarioa

Atal honek azterlan hau gidatu izan duten printzipio etikoen eta erabili izan diren kontzeptuen funtsezko definizioak jasotzen ditu, parte hartu duten kongoar emakumeen bizipenekiko eta ahotsekiko gardentasuna, zorrotasun akademikoa eta errespetua bermatzeko.

8.1.1. Adierazpen Etikoa

Azterlan hau inplikaturako kongoar emakumeekiko errespetuan eta haien duintasunean eta parte-hartzean oinarritutako ikuspegi etiko batetik egin izan da. Printzipio hauek jarraitu dira:

- **Baimen informatua:** Elkarrizketatutako pertsona guztiei eman zitzaizen lanaren asmoaren berri eta baimena eman zuten parte hartzeko eta beren historiak partekatzeko.
- **Identitateak babestea:** Datu pertsonalak anonimotasunean geratu dira parte-hartzaileen segurtasuna eta pribatutasuna babesteko eskatu denean edo beharrezkoa izan denean.
- **Birbiktimizaziorik ez:** Emakumeak minarekin edo sufrimenduarekin bakarrik lotzea saihestu izan da. Euren agentibitatea, esperientzia, erresistentzia eta duintasuna lehenetsi izan dira.
- **Erantzukizun kolektiboa:** Prozesuan ezagutza sortzen etika feminista eta komunitarioa zaintzen duten antolakundeek lagundu izan dute.

8.1.2. Hitzen Glosarioa

1. **Intersektzionalitatea:** Zapalkuntza sistema ezberdinak (generoa, arraza, klasea, migrazioa) elkarlotuta nola diren eta desberdintasun era espezifikoak nola sortzen dituzten aztertzen duen ikuspegia.
2. **Dekolonialitatea:** Kolonialismoak ezarritako botere egiturak ezbaian jartzen dituen ikuspegi kritikoa. Beste jakintza, epistemologia eta bizimodu batzuen aitortza sustatzen du.
3. **Birbiktimizazioa:** Biktima bat berriz ere sufrimenduak jasatera eramaten duen prozesua, sarritan euren agentibitatea ukatzen duten diskurtso edo praktika instituzionalen bitartez.
4. **Diaspora:** Herri baten banaketa bere jatorriko lurraldetik kanpo. Kasu honetan, KEDtik kanpo bizi diren kongoar emakumeak.
5. **Agentibitatea:** Pertsonak jarduteko, erabakiak hartzeko eta beren ingurua eraldatzeko duten gaitasuna.

8.2. Egindako elkarrizketak

Elkarrizketa kualitatiboak egin ziren azterlan/egitasmo honen harira kongoar emakumeekin, bai Ruziziko eskualdean, bai Bizkaiko diasporan. Elkarrizketa horietan, bizi-esperientziak, indarkeriari buruzko pertzepzioak eta erresilientzia eta lidergo estrategiak bildu ahal izan ziren, eta baita gatazka, migrazio eta egokitze kultureko testuinguruetan zituzten erronkak ere.

PARTE-HARTZAILEAK

Elkarrizketa kopurua: 27 elkarrizketa sakon (12 Ruzizin eta 15 Bizkaian).

Parte-hartzaileen profila:

- Ruzizin bizilekua duten eta Bizkaira migratutako kongoar emakumeak, gatazka armatuek, genero indarkeriak eta migrazio prozesuek kaltetutakoak, sare komunitarioetan, emakume migratzaileei laguntzeko proiektuetan eta tokiko lidergoko espazioetan era aktiboan parte hartzen dutenak.
- Adina: 18-65 urte.
- Esperientzien aniztasuna: genero indarkeriatik bizirik ateratakoak, komunitateko emakumezko liderrak, tokiko elkarteetako langileak edo emakumeen eskubideen aldeko aktibistak.

METODOLOGÍA

- Ruzizin eta Bizkaian egindako elkarrizketa erdiegituratuak eta, ahal izan zenean, Zoom plataformaren bidez KEDko parte-hartzaileentzako lan bateratua era telematikoan, eta elkarrekin ikasteko eta aberasteko topaketa birtual bat.
- Jorratutako gaiak:
 - Indarkeriako eta diskriminazioko bizipenak (jatorrian eta migrazioan).
 - Indarkeriaren inpaktu soziokultural eta pertsonala.
 - Erresilientzia eta biziraupenerako estrategiak.
 - Laguntzako eta lidergo komunitarioko sareak.
 - Eskubide eta zerbitzuetarako diren oztopoak eta erronkak
 - Eraldaketa sozialari eta ahalduntzeari buruzko perspektibak.

EMAITZAK ETA EKARPENAK

- Elkarrizketek **emakumeei ahotsa ematea** ahalbidetu zuten, egiturazko indarkeriaren magnitudea eta erresilientzia eta lidergo femeninoaren gaitasuna agerian uzten duten lekukotzak bilduta.
- Gatazka eta migrazio testuinguruetako emakumeen arteko patroik komun batzuk identifikatu ziren: **laguntzako sareek, antolakuntza komunitarioak eta duintasunaren eta justiziaren bilaketa aktiboak** duten garrantzia, baita inpunitatearen aurrean ere.
- Lekukotasunak baliabide baliotsua dira **politika publikoak, babes-programak eta komunitatea indartzeko estrategiak bideratzeko**.

8.2.1. Egindako elkarrizketak: Ruziziko lautadako emakumeak

SPR (Synergie des Femmes pour la Paix et la Réconciliation des Peuples des Grands Lacs d'Afrique) antolakundearen bitartekaritza jaso genuen lautadako lanean. Erakunde horrek Afrikako Aintzira Handien eskualdean bakea, adiskidetzea eta emakumeen ahalduntzea sustatzen du.

PARTE-HARTZAILEA	INDARKERIA EDO ERRONKA MOTA	ERRESILIENTZIA ETA LIDERGO ESTRATEGIAK	OHARRAK
1 Emakumea	Indarkeria sexuala	Laguntza komunitarioko sareak eta elkarrekiko laguntza	Isilpeko lidergoa komunitatean
2 Emakumea	Behartutako lekualdatzea	Familiako eta komunitateko antolaketa	Tokiko segurtasun batzordeetan hartzen du parte
3 Emakumea	Hezkuntzarako sarbiderik eza	Hezkuntza informala, zainketa kolektiboa	Neskatxen hezkuntza sustatzen da
4 Emakumea	Erasotzaileen inpunitatea	Komunitatearen salaketa, laguntza psikologikoa	Lidergo femeninoa arrisku egoeretan
5 Emakumea	Gatazka armatuengatiko trauma	Zainketa kolektiboko espazioak, erresilientzia	Laguntza emozionalerako emakume taldeen antolaketa
6 Emakumea	Familia desegituratzea	Familien arteko laguntza sarea	Berreraikuntza sozialeko programetan parte hartzea
7 Emakumea	Indarkeria ekonomikoa	Mikroekimen komunitarioak	Lidergoa tokiko ekonomia txikietan
8 Emakumea	Segurtasun gabezia lekualdatzeetan	Zainketa komunitarioaren koordinazioa	Neskatxa eta emakume zaurgarrien babesa
9 Emakumea	Osasunerako sarbiderik eza	Zainketa eta akonpainamenduko sareak	Sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko heziketa
10 Emakumea	Indarkeria psikologikoa	Elkarrekiko laguntza, entzute aktiboa	Erresilientzia emozionaleko taldeak
11 Emakumea	Lidergo femeninoari buruzko murrizketa kulturalak	Ahalduntze eta mentoretza espazioak	Emakumezko lider berriak trebatzea
12 Emakumea	Gizarte bazterkeria	Antolaketa komunitarioa	Erabakiak hartzen parte-hartze aktiboa sustatzen da

Oharra: SPR giltzarri izan da emakumeen parte-hartzea bultzatzen, lidergo komunitarioa sustatzen eta egiturazko indarkeriaren aurrean laguntza sareak eta erresilientzia indartzen.

8.2.2. Egindako elkarrizketak: Bizkaiko emakumeak

Bizkaian, elkarrizketak **FAMEK Elkartearen (Euskal eta Kongoar Emakumeen Garapenerako Lankidetzaren Elkartea)** laguntzarekin egin ziren. Kongoar emakumeei beren integrazioan, lidergoan eta indartze komunitarioan laguntzen dien erakundea da.

PARTE-HARTZAILEA	INDARKERIA EDO ERRONKA MOTA	ERRESILIENTZIA ETA LIDERGO ESTRATEGIAK	OHARRAK
1 Emakumea	Laneko eta gizarteko diskriminazioa	Emakumeen elkarteetan parte hartzea	Etorri berrientzako mentoretza
2 Emakumea	Genero indarkeria	Laguntza sareak sortzea	Lidergoa tailer komunitarioetan
3 Emakumea	Arrazismo instituzionala	Kultur jardueretan parte hartzea	Kongoar identitate kultura indartzen du
4 Emakumea	Hizkuntza oztopoak	Klaseak eta laguntza taldeak	Integrazio sozialerako gaikuntza
5 Emakumea	Bazterketa ekonomikoa	Mikroproiektuak eta gaikuntza	Lidergo komunitarioaren indartzea
6 Emakumea	Erregularizazio administratiboa	Lege aholkularitza, akonpainamendua	Tokiko GKEekin sareko lana
7 Emakumea	Gizarte isolamendua	Laguntza emozionalerako sareak	Jarduera komunitarioetan parte hartzea
8 Emakumea	Indarkeria psikologikoa	Ahalduntze tailerrak	Erresilientzia indibidualeko eta kolektiboko estrategiak
9 Emakumea	Genero eta jatorriagatiko diskriminazioa	Mentoretza, lidergoan trebatzea	Sentsibilizazio jardueren koordinazioa
10 Emakumea	Oztopo kulturalak	Kultura arteko jarduerak	Integrazioa eta elkarrekiko errespetua sustatzen da
11 Emakumea	Etxeko indarkeria	Laguntza eta aholkularitza taldeak	Tokiko gizarte zerbitzuekin koordinazioa
12 Emakumea	Lanerako sarbiderik eza	Trebakuntza profesionala, lan sareak	Ahalduntze ekonomiko eta soziala
13 Emakumea	Arrazismoa eta xenofobia	Sentsibilizazio kanpainetan parte hartzea	Giza eskubideen sustapena
14 Emakumea	Hezkuntzako bazterketa	Eskolan eta prestakuntzan laguntzea	Kongoar neska gazteei laguntzea
15 Emakumea	Osasuneko eta zerbitzuen sarbiderako arazoak	Osasuneko sare komunitarioak	Osasun zerbitzuei buruzko informazioaren zabalpena

Oharra: FAMEKek lidergoa, erresilientzia eta komunitateko parte-hartze aktiboa garatzen lagundu izan die emakume migratzaileei, laguntza sareak, mentoretza eta integratzeko estrategiak indartuz.

8.2.3. Elkarrizketen gaineko konklusioa

Ruzizi lautadako Kamanyola eta Runingu multzoetako 12 emakumeri eta Bizkaiko 15 emakumeri SPRren eta FAMEKen laguntzarekin egindako elkarrizketek agerian utzi dute kongoar emakumeek laguntzako, zainketa kolektiboko eta laguntza legal eta emozionaleko sare sendoak dituztela, indarkeriak, diskriminazioak eta egiturazko mugek markatutako testuinguruetan bizi arren. Jardunbide horiek euren erresilientzia indartzen dute, integrazioa bultzatzen dute eta lidergo komunitarioa sendotzen dute, eskubideak defendatzen eta bakea sendotzen aldaketako eragile direlarik. Lekukotasunek, halaber, tokiko elkarteek eraldaketa sozialeko prozesuak sustatzen duten rol estrategikoa nabarmentzen dute eta genero, migrazio eta justizia sozialaren ikuspegia jasotzen duten eta haien zerizanezko ekarpena aitortu eta indartzen duten politika publikoen premiatasuna azpimarratzen dute.

Ahots multzo horrek erakusten du nola, zorigaitzoaren erdian ere, **etorkizun bidezkoagoak, solidarioak eta indarkeriarik gabekoak irudikatu eta sortzeko gai den indar kolektibo bat loratzen den**, herrialdeen arteko mugak gainditzen dituen itxaropen eta duintasun irakaspen bat eskainiz.

8.3. Material osagarriak (argazkiak, bideoak, etab.)

Material osagarriak aurkeztu aurretik, garrantzitsua da azpimarratzea eranskin hauek azterlanaren ulermena aberasten duten laguntza bisual eta dokumentala eskaini nahi dutela. Ikerketaren prozesua eta kongoar emakumeen parte-hartze aktiboa azaltzen duten baliabide grafikoak, argazkiak eta elementu gehigarriak biltzen ditu.

Ikusizko materialek era bizian azaltzen dute Ruzizi lautadako eta Bizkaiko kongoar emakumeen indarra, sormena eta erresilientzia. Irudiak edo bideoak bainoago, lidergoaren, zainketa kolektiboaren eta eraldaketa sozialaren lekukotzak dira, eta komunitate bidezkoagoak eta solidarioak eraikitzeko aitortzaren, ekintzaren eta itxaropenaren inspirazio iturri dira.







8.4. Bibliografia eta iradokitako materialak

Jarraian aipatzen diren obren irakurketa iradokitzen da **Kongoko Errepublika Demokratikoaren (KED) gataskari**, testuinguru horretako **emakumeen erresilientziari** eta **baliabide naturalen ustiakuntzari** buruzko ulermena aberasteko. Erreferentzia horiek, jakintza handitzeaz gain, etorkizuneko **azterlan** eta eragin politiko eta sozialeko prozesuetarako ere balioko dute.

- **Kavene, M. D. (2023). Femmes dans la guerre au Nord-Kivu – Résilience et foi chrétienne: Pour que la vie continue.** Egokia Ruziziren testuingururako eta erresilientzia eta lidergo femeninoaren ataletarako.
- **Mumengi, D. (2024). Le Congo et les Grands Lacs : la paix tout de suite... Pourquoi et comment?** [Kongo eta Aintzira Handiak: bakea atoan... Zergatik eta nola?]. **Kinshasa, KED.** Aproposa bakeari eta adiskidetzeari buruzko gomendioetarako.
- **Bafouolo, P. (2023). Femmes du Congo: 20 parcours inspirants** [Kongoko emakumeak: 20 ibilbide inspiratzaile]. **Cultura.** Esparru ezberdinetako lidergo femeninoaren adibide zehatzak eskaintzen ditu.
- **Ndala, B. (2021). Dans le ventre du Congo** [Kongoren barrenetan]. KEDren sustrai kolonialak eta poskolonialak ulertzen laguntzen duten eleberri historikoa.
- **Nshokano Mweze, J.-R. (2021–2025). À la quête d'un Congo de nouveau** [Kongo berri baten bila]. Itxaropena eta etorkizuna inspiratzen duen ahots poetiko bat.
- **Carlos, Denis Mukwege-ren hitzaurrearekin. Vivre et survivre en RD Congo** [Kongoko EDn bizitzea eta bizirautea]. Memoria eta erreportajea uztartzen ditu diktaduren eta gatazken menpeko bizitza erakusteko.

Dokumentu honetako zeharkaldiak erakusten digu kongoar emakumeen erresilientzia, sormena eta elkartasuna itxaropen eta eraldaketaren itsasargi direla, are gatazkarik suntsitzaileenetan. Lidergo eta erresistentziako haien historiek erakusten dute bakea eta justizia ez direla idealak bakarrik, posible dela horiek lortzea gehien sufritzen dutenen eta, aldi berean, bizitzaren alde gehien borrokatzen dutenen ahotsa aitortu eta indartzen denean.

Iradokitako erreferentziek eta materialek zabaldu egiten dute ulermen hori eta tresnak eskaintzen dizkie aldagaketen, eragin politikoan eta komunitateen eraikuntzaren prozesuetan lagundu nahi dutenei. Azterlan honi bukaera ematean, argi geratzen da KEDko emakumeei laguntzea gizarte osoaren bakean, duintasunean eta etorkizunean inbertitzea dela.

